



Berriobeitiko Udala

- Aitzoain Berriogoiti
- Añezkar Elkarte
- Artika Larrageta
- Ballariain Lotza
- Berriobeiti Oteitza



Kontsultatu udal ordenantzak



Guztion ardura da Berriobeitiko herriak bizitzeko tokirik onenak izatea. Esparru publikoetan gizalegearen kontra jokatzek errespetu falta handia adierazten du bere bizilekuarekin konprometiturik dauden herritar gehienekiko.

HONDAKINAK / TAMAINA HANDIKOAK

Utzi hondakin bakoitza bere edukiontzia barnean; inoiz ez, kanpoan. Emausko Trapuketariak tamaina handikoez arduratzen dira eta etxez etxe biltzen dituzte.

948 302 898



TXAKURRAK

Jabeak loturik eraman behar du beti bere maskota. Halaber, animalia gerozkiak bildu eta paperontzi berezietara eraman behar ditu. Erabili txakurrendako eremuak.



KALE GARBIAK

Kale, parke eta plazetako zikinkeriak herriaren eta biztanleen utzikeria salatzen du. Erabil itzazu paperontziak eta, paperontzirik hurbil topatzen ez baduzu, eraman hondakinak gainean.



AUTOKARABANAK

Berriobeitik aparkaleku bat dauka Artikaberrin bai autokarabanendako, bai tamaina handiko ibilgailuendako. Aparkalekua erabiltzeko, eskatu Udalean dagokion txartela.



AUTOEN ABIADURA

Errespetatu trafiko-arauak eta gidatu kontuz. Pentsatu oinezkoengan eta txirindulariengan!



SUA

Bero zakarrak eragindako arrisku egoera dagoenean, egin jaramon alertari, eta kontuz zigarro-puntekin eta kristalezko hondarrek! Hotz garaian, arriskutsua da gaizki itzalitako txingarrak edukiontzira botatzea.



LANDARE-HESIAK ETA ZUHAIXKAK

Jabeek beren lursailetak landare-hesiak eta zuhaixkak moztu behar dituzte, adarrak eremu publikoan edo espaloian sartzen direnean.

